

## Euskal Herriko Laborantza Ganbara Iparraldeko laborantza sare dinamiko baten baitan

Laborantzaren garapenerako Iparraldeko sare dinamikoan parte hartzen du Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, ELB sindikata, InterAmap eta Arrapitz federazioko Euskal Herriko Etxe Ekoizleen elkarteak, Afog, Ble bezalako partaideekin batera.

Elgarrekin sortu dute :

- **Lurzaindia SCA, 2013an / [www.lurzaindia.eu](http://www.lurzaindia.eu)**

Helburua : laborantzaren plantatzea sostengatzea, laborantza lurraz zainduz, lur espekulazioa salatuz eta tratatuz.



- **Zurkaitzak, Iparraldeko instalatze-transmisio sarea, 2015an**

Helburua : laborantzaren plantatu nahi duten pertsonak jarraitzea beren proiektuaren urrats guzietan. Halaber, beren etxaldea transmititu nahi duten laborariak laguntzen dituzten sareak.



« Laboraria zira eta gure lanen berri ukan nahi duzu ?  
Izar Loreari harpidetu zaitez ! Urririk eskura dezakezu etxera.  
Bestalde, gure formakuntza eskaintza eta gure aktualitatearen berri  
ukaiteko, gure berrikapera galdegin ezazu [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org) gunean. »


Laborantza herrikoiak kalitatezko janari sanoa ekoiztu behar du lurralde osoan banatuak diren etxaldeetan, laborariak beren lanetik behar bezala bizi araziz, biharko baliabide naturalen errespetuan, baserriko ingurumena zainduz.



Euskal Herriko Laborantza Ganbara  
Zuentzat - 64220 AINIZA MONJOLOSE  
Tel : 05 59 37 18 82

[laborantza.ganbara@ehlgbai.org](mailto:laborantza.ganbara@ehlgbai.org) / [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

Arizmendi inprimategia - D. Garazi - RCS B 410 647 986



EUSKAL HERRIKO  
LABORANTZA GANBARA

## Laborantza herrikoia eta iraunkorraren alde, Euskal Herrian



Euskal Herriko Laborantza Ganbara  
Zuentzat  
64220 AINIZA MONJOLOSE  
Tel : 05 59 37 18 82  
[laborantza.ganbara@ehlgbai.org](mailto:laborantza.ganbara@ehlgbai.org)  
[www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)



## Laborarien jarraipena laborantza herrikoirantz, gure lehentasuna

- Instalazioa-transmisioa : kandidatuena jarraipena. Instalatzeko aitzin-diagnostikoa, ikerketa ekonomikoa eta instalatze ondoko jarraipena
- Laborantza praktiken hobetzea, formakuntza eta animazio teknikoeri esker : hazkuntzaz (artaldearen kudeaketa, ongarraren kudeaketa, konpoztatzea etab.) eta landareetaz (lurraren zaintzea – TCS, pentzeen kudeaketa etab.)



- Etxaldeko inbestizamendu proiektuen jarraipena : Area PCAE (bastimenduak, araueri egokitzeko obrak...), ekoizpenak etxaldean transformatzeko obrak, mendiko tresneria etab.
- Etxaldeko diagnostiko energetikoa (Dia'Terre)
- Arbolaren lekua laborantza herrikoian
- Laguntza juridikoa (aholkua, kontratuen idaztea, laborantza sozietateen sortzea edo aldatzea)
- Araudiak jarraitzea eta dozieren betetzen laguntzea : PAC deklarazioak, MAEC dozierak, ardi eta behi laguntzak, artaldea zaintzeko laguntzak, Certiphyto etab.

## Ekonomia bertokiratzeko proiektu kolektiboen jarraipena, gure jakitatea

- Taldeak animatu
- Merkatu eta salmenta bideen ikertzen lagundu
- Komunikazio tresnen sortzen lagundu
- Ikusmolde ekonomikoa, forma juridiko egokia hautatu, partaideak atxeman etab.

Adibide batzu :

- **Nouste Ekilili** : jateko olioaren ekoizpena eta salmenta plantan ezartzen lagundu
- **Sasi Artalde** : Sasi Ardiaren ezagupen lana eta sal-bideak atxemaiten lagundu
- **Xapata** : Itsasuko gereziaren ekoizleak lagundu sormarka baten eskuratzen
- **Herriko ogia eta Herriko haragia** : ekonomia bertokiratzeko bi desmartxen sortzea ko-animatu (ogia eta irinaren ekoizpenari laguntza teknikoa ekarri, Herriko haragia saila animatu)
- **Publikoa etxaldean errezebitzeko proiektuak jarraiki** (Adib. : Accueil Paysan)

## Elkargoekin eskuz-esku (herri-elkargo, herriko-etxe), gure partaideak dira



### Lurra

- Hirigintza dokumentuen lantzean parte hartu (PLU - Hirigintzaren tokiko plana etab.)
- Laborantza diagnostikoen egitea eta lurralde mailako laborantza proiektuak eraikitzen laguntzea
- Laborantza lurren kudeatzen laguntzea

### Ingurumena

- Ura : diagnostikoak eta animazioak uraren kalitateaz, edateko ura bilguneen gainaldean diren etxaldeetan (bacteriologia, pestizidak etab.)
- Natura 2000 : DOCOB helburu-dokumentuen idazketa eta animatzea, MAEC dozieren muntaketan laguntzea
- Mendiaren kudeaketa : mendi-diagnostikoen egitea
- Berotegi efektua eragiten duten gasak : lurralde mailako diagnostikoa (Climagri ikerketa, berotegi efektua eragiten duten gasetaz, Ipar Euskal Herrian)



### Euskal Herriko laborantzaren behatokia

Euskal Herriko laborantzaz lurralde azterketa tresna baten sortzea : estatistika eta datu ekonomikoen biltzea eta hedatzea, lekuka edo/eta gaika, lurraldeko eragileen beharren arabera. Lurralde azterketa tresnaren lehen emaitzak bi liburutan argiratuak dira.

### Publiko zabalak laborantza herrikoari sentsibilizatu

- Lurrarna, laborantza herrikoia saloia antolatzea
- Mintzaldien antolatzea
- Eskoletako jarduerak eta animazio pedagogikoak segurtatzea
- Parte hartzeak laborantza ikastetxetan
- Gertakarietan parte hartzea (Euskal Herria Zuzenean festibala, Bibi Beurivage auzoko etxe merkatua, Black & Bask festibala, Du Flocon à la Vague, Alternatiba, Korrika etab.)

